

INFORMAZIO ZIRKULARRA

2013ko EKAINA

Gaia: OSTALARITZAKO JARDUEREN FUNTZIONAMENDURAKO BALDINTZA OROKORRAK

Aintzat hartuta udaldia hasi dela, eta, garai horretan ostalaritza-jarduerak gora egiten duenez nabarmen, horrek guztiak udalerriko bizilagunei traba eta oztopo eragiten diela.

Aintzat hartuta 2012an moldatu egin zela ordutegiei eragiten dien araubidea, 36/2012 Dekretuaren bidez (2012ko martxoaren 21eko EHAA), eta haren bidez ezarri zela aisialdi-jardueren ordutegia Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

Halaber, apirilaren 23ko 7/2012 Legearen bidez, hainbat lege moldatu eta egokitu dira Europako Parlamentuak abenduaren 12an emandako 2006/123/CE Zuzentaraura egokitzeko. Egokitutako lege horietako bat da Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea; eta lege horrek finkatzen ditu sailkatutako jarduerak —besteak beste, ostalaritzakoa— ezartzeko eta garatzeko baldintzak eta arauak.

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege horren 64. artikuluan xedatutakoarekin bat, udal eskumenekoak direnez sailkatutako jarduerak behar bezala ikuskatzea eta kontrolatzea.

Hortaz, honako honen bidez:

Lehenengoa.- OSTALARITZA JARDUEREN FUNTZIONAMENDURAKO BALDINTZA OROKORREN berri ematen diet gure udalerrian ostalaritza-jardueretan aritzen diren titularrei, aintzat hartu eta bete ditzaten, kasu bakoitzari dagokion lizentziaren eta lizentzia horri dagozkion baldintza berezien arabera. Baldintza orokorren dokumentua Eranskinean dago jasota.

Bigarrena.- Herritarrei, oro har, jakinarazten diet dokumentu hori Udalaren web- orrian izango dutela eskuragarri, nahi dutenean kontsultatzeko.

Zierbena, 2013ko ekainaren 3a

Sin.: Marcelino Elorza Talledo

OSTALARITZAKO JARDUEREN FUNTZIONAMENDURAKO BALDINTZA OROKORRAK

Argi geratu behar du udal honek emandako lizentziak **lokalen barruan** gauzatzen diren ostalaritza-jardueren arlokoak direla, eta jarduera horiek soilik baimentzen dituztela.

JARDUERA OSOARI ERAGITEN DIZKIOTEN BALDINTZAK (lokalaren barruan)

TITULARTASUNA:

1. Ostalaritza-jarduera guztiek bete egin behar dituzte Jarduera- eta Irekitze-lizentzietan berariazko jarduera bakoitzerako ezartzen diren betebeharrak guztiguztiak —horiek Udal agintariek ebatzi zituzten ezarri ziren unean—, bai eta ondorengo aldaketak ere, gogoan izanda horiek guztien berri eman zitzaieला jardueren titularrei zegokion garaian.

Jardueraren gaur egungo titularrek jakin ezean zein diren berariazko baldintza horiek, Udal agintariek kopia bat emango diete, jardueraren gaur egungo titularrek aurretiaz idatziz hala eskatuta.

2. Lokala —eta hari lotutako jarduera— 2012ko maiatzaren 1a baino lehenago eskualdatu bazen, Irekitze-lizentziaren titulartasuna gaurkotuta egon beharko da, eta bertan gaur egungo titularren izena agertu.

Titulartasuna ez bada aldatu, edo zehaztutako dataren ostean egin bada, erregularizatu egin beharko da titulartasuna Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 62 bis artikuluan xedatutakoaren arabera. Lege horretan aurreikusten denaren arabera, jarduera sustatzen edota gauzatzen duenak aurretiaz jarriko beharko du Udala jakinaren gainean, eta jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren agiriak aurkeztuko ditu.

ORDUTEGIA:

3. 36/2012 Dekretuak (2012ko martxoaren 21eko EHAA) arautzen ditu lokalen funtzionamendu-ordutegiak; izan ere, Dekretu horrek ezartzen du aisialdi-jardueren ordutegia Euskal Autonomia Erkidegoaren eremu osoan.

Hona hemen, hortaz, lokalak ixteko ordutegia:

Ohiko ordutegia: (igandetik ostegunera, jaiegunen bezperetan izan ezik):

2. taldea: Ostatu, taberna, kafetegi, erretegi eta jatetxeak: 01:00 h

3. taldea: Taberna bereziak (“La Jaima” edo “Casablanca”ren gizakoak): 02:30 h

4. taldea: Dantzalekuak, kafe antzokiak eta antzekoak: 04:30 h

Ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetako ordutegia:

2. taldea: Ostatu, taberna, kafetegi, erretegi eta jatetxeak: 02:30 h
3. taldea: Taberna bereziak ("La Jaima" edo "Casablanca"ren gisakoak): 04:00 h
4. taldea: Dantzalekuak, kafe-antzokiak eta antzekoak: 06:00 h

Ordutegi horiek ordu erdiz luzatuko dira ekainaren 1etik irailaren 30era, eta bi orduz honako egun hauetan:

- Udalerriko auzo bakoitzaren zaindariaren egunean.
- Urriaren 15ean.
- Aste Santuan, ostegunetik astelehenera; Inauterietan, asteartetik ostegunera; eta Gabonetan, abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra.
- Udalak berak antolatzen dituen jaialdi eta jarduera publiko eta jendetsuen egunetan.

ZARATAK ETA BIBRAZIOAK:

4. Oro har, musika- edo bideo-ekipoa izateko baimena duten establezimendu guztiek ate bikoitza izan beharko dute lokalen sarbideetan, eta ateoak berez ixteko trenez hornituta egongo dira. Bi ate horiek haizearen kontrako atartea osatuko dute, eta sekula ez dira egongo biak aldi berean zabalik. Establezimendu horietan leihoak ez dira erabilgarri egongo —hau da, ez dira zabalduko—, eta itxita egongo dira jarduera gauzatzen den bitartean. Modu berean, sarreretako ateoak ez dute izango ateoak berez ixtea oztopatuko duen elementurik.

5. Lokalean sortzen den zarata airetik ez dela zabalduko bermatzeko isolamendu egokia, dB (A)-tan neurtutako zarata arrosaren isolamendu orokorrak —100 Hz eta 5 KHz arteko isolamendu kurbatik abiatuz kalkulatuta— gutxienez 65dB (A)-koa izan beharko du inguruko etxebizitzetara dagokienez, edo arauzko zarata-mugatzaileak izan beharko dituzte, etxebizitza horien barruko zarata, gauez, 30 dB (A)-tik beherakoa izan dadin (22:00etatik 08:00etara). Aintzat hartuta Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 55. artikuluan xedatutakoa eta haren II. eranskina, arestian aipatutako baldintzak 4 ohmeko karga estandarretarako 50 wattetik gorako potentzia eraginkorra duen musika-ekipoa edo soinu-aparatua duten lokalei aplikatuko zaizkie.

6.- Bozgorailuak, soinu-aparatuak eta gainerako makinaria bibrazioaren aurkako lokarrien bidez ainguratuko dira, horien bibrazioa eta zarata ez dadin igaro eraikinaren egiturara eta inguruko lokal eta etxebizitzetara.

AIREZTAPENA:

7.- Soinu-ekipoak dituzten lokal guztiek aireztapena behartzeko sistemak izan behar dituzte; aireberritze hori ezin baita modu naturaleran egin —leihoen bidez—; izan ere, lokal horietan leihoek itxita egon behar dute. Sistema horiek ez diete sortuko auzokoei inolako zarata- edo bibrazio-arazorik ezta usain txarrik ere. **Aire**

zikina sistema mekaniko bidez kanporatzeko puntuak (kanporatze-saretak) modu jakinean eta zehatzean jarri behar dira: espaloitik 2 metrora gutxienez, eta jarduerarena ez den edozein sarrera-irteera zulotik 2 metrora. Aire zikina kanporatzeko hodian, nahitaez ipiniko dira aire hori garbitzeko beharrezko iragazkiak, eta berariaz zainduko dira UNE-100.030 (2005) arauak xedatutakoa betetzeko, arau horrek xedatzen baititu Neumofila bakterioak halako instalazio eta ekipoetan eragin dezakeen kutsaduraren aurkako irizpideak.

8.- Lokalak baimena izanez gero sukaldea izateko, **erabat debekatuta dago sukaldeko gailuak (sukaldea, frijigailua, plantxa,-erregailua, labea eta antzekoak) horretarako egokitutako sukalde edo erretokitik kanpo erabiltzea.** Ereku horiek, gainera, kea hartu eta arazteko sistema egokiak izango dituzte. Ke horiek berariazko tutu baten bidez kanporatuko dirarena eraikinaren edo teiltuaren hegaletik bi metrotik gora.

SUTEEN AURKAKO SEGURTASUN- ETA BABES-NEURRIAK:

9.- Gasaren, elektrizitatearen eta larrialdietarako argien tresneriak eta suteak atzemateko eta horien aurkako instalazioek zorrotz bete beharko dute dagokien berariazko araudia, eta beti egongo dira behar bezala funtzionatzeko eta erabiltzeko moduan. Instalazio horiek mantentze-zerbitzu homologatuek berrikusi eta egiaztatu beharko dituzte berariazko araudiak xedatzen duen maiztasunarekin —Gasa: urtean behin edo bi urterik behin. Suteen aurkako sistemak: urtean behin edo sei hilean behin, sistemaren arabera—, eta mantentze-zerbitzu horiei eskatu behar zaizkie ikuskapen bakoitzari dagozkion ziurtagiriak.

OSTALARITZA JARDUEREI LOTUTAKO TERRAZEI ETA MAHAITXOEI APLIKATU BEHARREKO BALDINTZAK (lokaletik kanpo).

La Arena hondartzaren eta El Puerto auzoaren inguruan terrazak jartzeko ohitura zabala dagoenez, honako baldintza hauek bete behar dira horrelakoak instalatu ahal izateko:

FUNTZIONAMENDU BALDINTZAK

1.- Urtero eskatu beharko zaio baimena Udalari, berdin espazio publikoetan instalatzen den zein pribatuetan. Baimena jarduera nagusiaren lizentziari lotuta dago, aldi baterakoa izango da eta prekariozaera izango du; horrela, bada, udal agintariak baimendutako instalazio horiek bide publikotik kentzeko agindu ahal izango dute horretara behartzen dutenean zirkunstantziek: interes orokorrekoak, urbanizazio beharrak, obrak (publikoak zein pribatuak), eta abar. Baimen etete horrek ez du ez sortuko kalte-ordaina izateko eskubiderik.

2.- Lizentziak beti jabetza eskubideari kalterik egin gabe eta beste hirugarren bati eragozpenik sorrarazi gabe emandakotzat joko dira. Lizentzia hori ezingo da erabili baimendunak bere jarduerak betetzean eragin lezakeen erantzukizun zibil edo penala kentzeko edo murrizteko, eta, halaber, lizentziak ez du titularra beste baimen batzuk eskuratu behar izatetik salbuesten —lurzoruaren jabetza, eta

abar—.

3.- Lizentziaren titularraren ardura da instalazioaren edozein elementuk bide publikoan eragiten dituen kalte guztiak konpontzea, eta bera izango da instalazio horiek edozein ondasun eta eskubidetan —publikoa zein pribatua— eragin ditzaketen kalte edo ondorioen erantzulea.

4.- **Berariaz dago debekatuta** edozein klaseko bozgorailuak, musika-aparatuak eta soinu-aparatuak jartzea lokalen kanpoko aldean edo kanpoko alderantz. Jarduera nagusiak soinu-aparatuak baditu lokalaren barruan, establezimendu horrek ate bikoitza izan beharko du —arestian zehatu denez—, jardueraren soinuaren isolamendua bermatzen duena. Halaber, berariaz dago debekatuta kanpoko alderako leihoak eta ateak zabalik izatea.

5.- Baimena, gehienez, urte natuala egongo da indarrean; hau da, urte horretako urtarriletik abendura arte iraungo du. Beraz, urtero egin beharko dira baimena berritzeko izapideak.

6.- Mahaiak eta aulkiak instalatzen direnean, oinezkoentzat 2 metroko pasabidea etengabe egongo dela bermatuko da, eta tresna horiek ez dute batere oztoporik eragingo hartzen duten luzera osoan.

Errespetatu egingo dira ebakuazio-bideak eta inguruko eraikin eta lokaletarako sarbideak, aurreko paragrafoan adierazitakoen antzeko zirkulazio-bideak bermatuta.

7.- Terrazaren instalazioaren gehienezko luzera, elementu osagarriak barne, ez da izango jarduera hartzen duen lokalaren edo hura bakarrik hartzen duen eraikinaren fatxada baino luzeagoa.

8.- Erabiltzen diren estalkiak, eguzkitakoak eta abar behin-behinekoak izango dira, erraz desmuntatzekoak, eta modu seguruan ainguratutakoak edo ezarritakoak. Nolanahi ere, Udal agintariek ukatu egin ahalko dute estaltzeko eskabidea honako kasu hauetan:

1.- Kaltegarri gertatu baliteke bide-segurtasunerako —ikuspena murriztu, gidariei arreta galtzea eragin, eta abar— edo oinezkoen joan-etorria nabarmen oztopatzen denean;

2.- Eragina izan dezakeenean inguruko eraikin eta lokalen segurtasunean (hustu beharra...);

3.- Ingururako egokia gertatzen ez denean edo inguruarekin bat ez datorrenean edota hiri-paisaia desitxuratu eta harekin orekan ez dagoenean.

9.- Establezimenduak ezarritako ordutegia gorabehera, terrazak ezin dira erabili 296/1997 Dekretuak (1997ko abenduaren 19ko EHAA) 10. artikuluan, 36/2012 Dekretuak (2102ko martxoaren 21eko EHAA) 7. artikuluan ezarritak ordutegitik

aparte; izan ere, dekretu horietan ezartzen da zein izango den aisialdi-jardueren ordutegia Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, eta, beraz, Gobernu Batzordeak 2003ko irailaren 26an hartutako erabakian adierazitako ordutegira mugatuko da terrazak jartzea. Honako hau da ordutegi hori:

- Neguko ordutegia: 08:00etatik 23:30era
- Udako ordutegia: 08:00etatik 24:00etara

Terrazan edo mahaitxoetan zerbitzeko ordutegia amaitu aurretik, elementu guztiak kendu behar dira bide publikotik, eta lokal pribatu eta itxi batean jaso. Terraza jartzeko erabiltzen diren espazioak titulartasun pribatukoak badira, terrazako lana ahalbidetzen duten elementu guztiak jaso, pilatu eta lotu egin beharko dira, horrekin bermatu nahi da bestek ez dituela erabiliko terraza eta altzariak inolako kontrolik gabe eta horretara arazoak sortu.

10.- Jardueraren titularrak garbi-garbi, seguru eta apain mantendu beharko ditu jarduera gauzatzeko erabilitako lurzorua eta bertan jartzea baimendutako instalazioak, bai eta bestelako elementu osagarriak ere, eta gune hori egoki erabiltzeko behar beste bitarteko erabiliko ditu: zakarrontziak, hautsontziak, etab. Terrazak erabiltzeko ordutegitik kanpo, mahaiak, aulkiak eta gainerako elementuak jaso edo kendu egin beharko dira.

11.- Lizenziaren indarraldia amaitzen denean, establezimenduaren titularrak instalazio guztiak jaso beharko ditu, eta espazioak aurretik zeuden-zeudenean utzi.

BESTE BALDINTZA BATZUK:

12.- Dagoeneko jarrita dauden instalazioak arautzeko xedez, baimenik ez duten instalazioek, informazio-idatzi hau jaso eta 20 eguneko epean, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, terrazak arauzkotzat jotzeko:

- Jardueraren titularrak sinaturiko idatzia. Bertan adieraziko du zein denbora tartetan izan nahi duen instalatuta terraza, eta zein egun eta ordutegitan funtzionatuko duen gutxi gorabehera.

- Eskalan egindako plano-eskema bat. Bertan adieraziko da zenbateko luzera duen lokalaren fatxadak, eta non kokatuko diren aulkiak, mahaiak eta terrazarekin lotuta jarri nahi diren —edo jarri diren— gainerako beste elementuak —lorontziak, karelak, lurrak... —.

- Espazio horiek estaltzeko behin-behineko instalazioak egonez gero, zehaztu egin beharko da non jarriko diren eta deskribatu egin beharko da: mota, altuera libre erabilgarria, instalatzeko edo ainguratzeko moduak, eta abar. Horrez gain, justifikatu egin beharko da zertarako erabiliko diren —hala badagokio— eta elementu horiek ere plano-eskeman sartu beharko dira.

13.- Baimenaren baldintzak ez betetzeak, terraza edo mahaitxoak baimendutako

ordutegia amaitu ostean jartzeak edo baimenean ez dauden elementu edo instalazioak jartzeak zigor ekonomikoa izango du. Zigor horiek hirigintzari eta tokiko araubideari buruz indarrean dauden legeen arabera ezarriko dira, arau hausteari buruzko espedienteak izapidetu ostean. Horrez gain, udal agintariak baimena baliogabetu dezakete eta instalazioa berehala kentzeko agindu, udal agindua bete ezean.

Udal agintariak, badaezpadako neurri gisa, berehala erretiratu ahal izango dituzte lizentzia edo baimenik gabe bide publikoan jarritako terrazak, mahaitxoak eta horien bestelako edozein osagarri. Halakorik gertatuz gero, horretarako ezarritako tokian biltegiatuko dituzte, betiere arduradunaren kontura eta araudiz ezarri dakizkion zigorretan eraginik izan gabe.

14.- Ordutegiak ez betetzeari dagozkion zigorrak zehazteko, Euskal Autonomia Erkidegoan aisialdi jardueren ordutegiak ezartzen dituen 296/1997 Dekretuaren 14. artikulua ezarritakoari jarraituko zaio.

OSTALARITZA ZERBITZUEK ZARAMA ETA HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUAK ERABILTZeko BALDINTZA OROKORRAK

1.- Ostalaritza establezimendu guztiek utzi beharko dituzte beren jardunean sortutako hiri-hondakin solidoak Udalak zarama biltzekoko gune bakoitzean ezarrita dituen bilketa-puntuetan.

2.- Debekatuta dago zaramak, hondakinak eta poltsak bide publikoan garraiatzea, tantak isurtzen badituzte edo bideak zein gune publikoak zikintzen badituzte.

3.- Berariaz dago debekatuta edozein zarama mota edukiontzietatik kanpo edo bide publikoan uztea.

4.- Zaramak uzteko, lehenengo nahitaez banandu eta sailkatuko dira haien jatorrian; hau da, ostalaritza establezimenduan. Banandu eta sailkatutako zati bakoitza dagokion edukiontzi zehatzean utziko da —orokorra-organikoa, papera-kartoia, ontziak, beira, arropa, etab.—, eta derrigorrez edukiontzien barruan. Horiek beterik badaude, inguruko mota bereko beste udal-edukiontziren batean utziko dira, nahiz eta horrek urrunago garraiatzera behartu.

ZARAMA OROKORRA ETA ORGANIKOA:

Zarama mota hau poltsa itxian utziko da beti eta edukiontzien barruan, bere buzoien bitartez. Zarama-poltsak, ahal den neurrian, ez dira edukiontzian sartuko beste ontzi batzuetatik irauliz.

Berariaz dago debekatuta zuzenean botatzea hondakin solteak upeletatik, pertzetatik edo edukiontzi txikietatik, itxi gabeko poltsetan edo tantak isurtzen dituzten poltsak.

PAPER ETA KARTOI HONDAKINAK:

Gisa honetako hondakinak edukiontzia horretarako duen buzoitik edo ahotik sartzeko moduko zatietan bilduta edo txikituta utziko dira barruan.

Berriaz dago debekatuta kartoi kutxa osoak tolestu gabe uztea edukiontzi barruan, zein edukiontzia inguruan metetzea.

ONTZI ETA ANTZEKOEN HONDAKINAK:

Hondakin mota hau edukiontzi barruan utziko da beste hondakin mota batzuekin nahastu gabe, eta ontziak guztiz hustuta egon behar dira. Poltsa batean bilduta garraiatzen badira, lehenengo edukiontzi barruan hustuko da poltsa, eta gero poltsa bera utziko da. Ahal den neurrian, plastikozko botilak eta ontziak aurretiaz tolestuta edo zapalduta utziko dira.

Berriaz dago debekatuta hondakinak edukiontzitik kanpo uztea. Horiek beterik badaude, inguruko mota bereko beste udal-edukiontzien batean utziko dira, nahiz eta horrek urrunago garraiatzera behartu.

BEIRA HONDAKINAK:

Hondakin mota hau edukiontzien barruan utziko da estalkiak edota metalezko zein kortxozko piezak sartu gabe. Botilak edo ontziak hutsik joango dira. Udalerriko ostalaritza titular guztiek edukiontzietara moldatzeko moduko beira-edukiontzi txikia badutenez, horren bitartez garraiatu beharko dute beira. Gainera, beira kutxa edo poltsen barruan eramaten bada ere, beira baino ez da utziko, eta kutxa edo poltsa dagokion edukiontzian utziko da —kartoia edo plastikoa—.

Zamakarako edukiontzi txikiak garbi eta inolako likidorik gabe mantendu beharko dituzte ostalariek, tantak eta aparteko zikinkeriarik ez sortzeko.

Berriaz dago debekatuta hondakinak edukiontzietatik kanpo uztea. Horiek beterik badaude, inguruko mota bereko beste udal-edukiontzien batean utziko dira, nahiz eta horrek urrunago garraiatzera behartu. Beira deskargatzeko sistema eta edukiontzian botatzea nahiko zaratatsua denez, debekatuta dago edukiontzietan beira botatzea gaueko 23:00etatik goizeko 08:00etara, horrenbestez, ordutegi horretatik kanpo bota beharko da.

Zierbenan, 2013ko maiatzaren 31n

36/2012 DEKRETUA, martxoaren 13koa, Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen Dekretua bigarrenaz aldatzen duena. (2012ko martxoaren 21eko EHAA).

Lehen artikulua.– Abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 2. artikulua aldatzen da. Horren bidez jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan. Artikulua honela geratuko da idatzita:

«2. *artikulua*.– Ostalaritzako eta jendaurreko ikuskizunen lokalak.

Ostalaritzako eta jendaurreko ikuskizunen lokal edo instalazio iraunkorrek, jarraian zerrendatzen baitira, ixteko ordutegi orokor hau izango dute, betiere establezimenduen udal lizentzietan zehaztutako jardueren arabera, zergen arloan deklaraturako jarduera edozein izanda ere:

1. taldea.– Berriaz adingabeentzat baimendutako lokal eta instalazioak edo, sukaldaritza- jarduera izan gabe, alkoholik gabeko edariak eta janariak emateko baimena dutenak, esate baterako:

– Gazteentzako dantza-aretoak eta dantzalekuak, diskotekak, dastalekuak, izozki-dendak, txokolategiak, txurro-dendak, kruasan- dendak, te-aretoak eta antzekoak: 23:00etan.

2. taldea.– Alkoholdun edariak emateko baimena duten lokal eta instalazioak edo sukaldaritza- jarduerak egiteko baimena dutenak, esate baterako:

– Tabernak, ardandegiak, edalekuak, kafetegi-tabernak, snack-ak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, janari-etxeak, txokoak, elkarte gastronomikoak, sagardotegiak eta antzekoak: 01:00etan.

3. taldea.– Jarduera berezi gisa, musika izateko baimena duten lokalak eta instalazioak, baina dantza egiteko pistarik gabe, esate baterako:

– Taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, bar amerikarrak, pubak, disko-barrak, karaokeak eta antzekoak: 02:30ean.

4. taldea.– Dantza egiteko pistarekin musika izateko edo ikuskizunak egiteko baimena duten lokalak eta instalazioak, esate baterako:

– Dantzalekuak, dantza-aretoak, diskotekak, kafe-teatroak, ikuskizunak dituzten jatetxeak eta antzekoak: 04:30ean.»

Hirugarren artikulua.– Abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 7. artikulua aldatzen da. Horren bidez jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dira. Artikulua honela geratuko da idatzita:

«7. *artikulua*.– Ordutegi berezien erregimen orokorra.

1.– Lokalak eta instalazioak ixteko eta beste ikuskizun edo jarduera batzuk amaitzeko ordutegia, dekretu honetan aipatzen baitira, honela luzatuko da:

- a) Ordu eta erdi ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan.
- b) Ordu erdi ekainaren 1etik irailaren 30era.
- c) Gehienez bi ordu dekretu honen 12. artikuluan aurreikusitako kasuetan:

2.– Ordutegien luzapen orokorrak, artikuluko honen aurreko paragrafoetan aipatzen baitira, meta daitezke.»

Laugarren artikulua.– Abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 12. artikulua aldatzen da. Horren bidez jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dira. Artikulua honela geratuko da idatzita:

«12. *artikulua*.– Udalen ahalmenak ordutegi bereziak ezartzeko.

1.– Zaindariaren jaiak eta beste jai edo interes turistikoa duten beste gertakari batzuk direla eta, udal agintariek gehienez bi orduz luzatu ahalko dute aurreikusitako ordutegia, betiere dagokion urte naturalerako udal bakoitzak onartu beharko duen egutegiaren arabera.

2.– Ondorio horietarako, udalak onartutako egutegiak gertaera eta data hauek jaso ahalko ditu:

- a) Zaindariaren jaiak, hau da, udal bakoitzak bere udalerrian ofizialki ezarritako jaiak.
- b) Aste Santuko ostegunetik astelehenera; Inauterietako ostegunetik asteartera, eta abenduaren 15etik urtarrilaren 6a arte Gabonetan.

c) Udalak berak edo Autonomia Erkidegoko organo eskudunak jaitzat hartutako edo interes turistikoa dutela irizitako beste gertakizun batzuk ospatzeko data zehatzak, hala nola ospakizun publikoak, auzoko jaiak, gertakari sozialak, azokak, lehiaketak, erakusketak edo antzeko beste batzuk, urte natural bakoitzeko hamabost eguneko gehienezko muga dagoela.

3.– Aurreko paragrafoan ezarritako urteko egutegirako aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, udalak ordutegi orokorra ere luzatu ahalko du gehienez bi orduz, urte natural bakoitzeko hamabost eguneko gehienezko muga dagoela, aurreikus ez daitezkeen ezohiko inguruabarren arabera eta aurreko paragrafoan aurreikusitako gertaeren izaera bereko gertaerei loturik.

4.– Behin urteko egutegia indarrean egonez gero, eta udalak hurrengo ekitaldietan

horretarako berariazko ebazpenik ematen ez duen bitartean, luzatutzat joko da hurrengo ekitaldietarako, betiere urte naturaleko datetarako behar diren moldaketak eginda.

5.– Auzoetako jaiak edo udalerraren barruko lurralde-eremu batera mugatutako gertaerak izanez gero, udalak erabaki ahalko du ordutegi berezia udalerriko lurralde-eremu zehatz batera mugatzea.

6.– Artikulu honetan aipatutako ordutegi-luzapenez erabakia hartzeko, udalek aukera izango dute lokalei neurri zuzentzaile bereziak eskatzeko; esate baterako, gehiegizko zarata- edo bibrazio- maila kontrolatu, arindu edo ezerezean uzteko gailuak instalatzeko eginbeharra.

7.– Udalak Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio aurreko idatz-zatien arabera hartutako ordutegi berezia. Gainera, ordutegia aplikatzeko eremua eta datak zehaztuko ditu; baita ordutegi horrek, hala egokituz gero, eragingo dituen mugapenak ere.

8.– Udal agintariek lokalen kanpoaldean terrazak edo antzekoak jartzeko lizentzia bereziak eman dituzten kasuetan, udalak berak instalazio horietarako ezarri dituen ixteko ordutegiak bete beharko dira, betiere dekretu honetan ezarritako mugen barruan eta hirugarrenei eragozpenik sortu gabe.»

296/1997 DEKRETUA, abenduaren 16koa, Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk eremuan ezartzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoaren (2012ko martxoaren 21eko EHAA).

10. artikulua.- Edariak hartzea lokalen kanpoaldean.

1) Udal bakoitzak bere udal ordenantzetan edo terraza edo antzekoentzat emandako lizentzietan ezar litzakeen muga nagusiagoen kalterik gabe, debekatuta dago lokalen kanpoaldean edariak hartzea 22:00etatik aurrera, dekretu honen 7. atalean ezarritakoaren kalterik gabe.

2) Horretarako, kontsumitzaile edo erabiltzaileek izan dezaketen erantzukizuna alde batera utzita, lokaletako titularrek, aipatutako ordutik aurrera, galarazi egin beharko dute bezeroek lokaletik kontsumizioak ateratzea, izan ere, Jendaurreko ikuskizun eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 34 eta 33. atalak hausteagatik zigortu ahal izango dira.

14. artikulua.- Ikuskapena, kontrola eta zigor erregimena.

1.– 4/1995 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, dekretu honetan araututako jardueren ordutegiei dagokienez, ikuskapen eta kontrolaren eskumena, bai eta zigorrak jartzekoa ere, lizentziak eta baimenak emateko eskumena duen

Administrazioarena izango da, Eusko Jaurlaritzari dagozkion eta lege horren 38. ataleko 2 eta 5. idazatietan ezarri diren ahalmenen kalterik gabe.

2.- Arlo honetan egindako arau-haustek, goian aipatutako 4/1995 Legearen 34.g atalean arau-hauste arin gisa tipifikatutakoak, berrehun mila pezetarainoko isuna jarriz zigortu ahal izango dira.

3.- Urtebete baino lehenago hirugarren arau-hauste bat eginez gero, aipatutako legearen 33 n) atalean ezarritakoarekin bat etorritz, larri gisa tipifikatuko da, eta honako zigorrak izango ditu: berrehun mila eta bat pezetatik bost milioi pezetarainoko isuna, jarduera edo jarduerak etetea gehienez ere urtebetean, lokala ixtea gehienez ere urtebetean eta jarduera hori egiteko desgaitzuntza gehienez ere sei hilabetean. Zigor horiek modu alternatiboan aplikatu ahal izango dira edo metagarriak izan daitezke.

GOBERNU BATZORDEA

2003KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

6.- Hainbat bizilagunek aurkeztutako kexak udako terrazek sortutako zarata dela-eta.

Ikusirik Ingurumenaren Informazio Batzordeak 2003ko irailaren 24an emandako erabaki proposamena,

Gobernu Batzordeak, bertaratutako kideen gehiengoaren botoz, honako **ERABAKI** hau hartu du:

LEHENENGOA.- Udalerriko terrazek erabilera arautuko duten ordutegiak onestea, honako era honetan:

- Neguko ordutegia: 08:00etatik 23:30era.

- Udako ordutegia: 08:00etatik 24:00etara.

BIGARRENA.- Udalerriko ostalariei jakinarazpena bidaltzea. Bertan aipatutako zaie bete egin behar dutela aipatutako ordutegia eta Udalari eskatu behar diotela jarrita dituzten terrazek egoera legezatzeko dagozkion baimena.